

Irakurketa txokoa eta zine kluba martxan jarriko dituzte azaroan Hernanin

Musikak ere hilabeteko kultur ekintzen programaren zati handi bat hartuko du

Hernanik prest du dagoeneko azaroko kultur programazioa eta hainbat ekintza jarriko ditu martxan hilabete horretan zehar.

Batetik, irakurketa txokoa izango da asteartetan Miriam Mendoza begiralearekin 17.30ean. Liburutegiko ipuinak hartu eta haurrei kontatuko dizkie Mendozak ordubeteko saioetan.

Zine kluba ere martxan izango da azarotik aurrera. Proiektzioak ostegunetan izango dira 21.30ean. Azaroaren 8an La vida de los otros filma ikusteko aukera izango da. Cartas desde Iwo Jima botako dute 15ean eta Banderas de nuestros padres 22an. Azkenik, azaroaren 29an, Bajo las estrellas filma ikusteko aukera izango da.

Hernaniko Mendiriz Mendi elkarteak antolatzen duen mendi astea ere izango da azaroaren 12tik 16ra eta 16an bertan amaituko da liburutegiak antolatzen duen Saski-naski azoka.

Musikak ere bere tarteak izango du datorren hilabeteko agendan. 18an Hernaniko albokarien hamalagarren topaketa ospatuko da. Horrez gain, Hernani musika eskola publikoko ikasleek kontzertua eskainiko dute Sandiusterrri aretoan 18.00etan. Piano eta biolin kontzertua izango da 23an Duo Assai bikotearekin, Arkaitz Mendoza eta Iñaki Lagosek osatzen dutena. Sandiusterrin izango da hau ere, 19.30ean.

Santa Zeziliako musika saioa hilaren 24an izango da eta horretan parte hartuko dute Kantuz abesbatzak, Hernaniko eta inguruko txistulariak, Metal boskotea eta Kriskitiña dantza taldea. Egun berean Haur kabareta haurrentzako antzerki saioa eskainiko du Agerre taldeak Biteri kultur etxean. Haurrentzako ere, ipuin kontaketa saioa izango da azaroaren 27an liburutegian Lur Kortarekin. >A.H.